

Gure Gauzak

BERSOLARIAK

Ardotegi ilunean, mai koipetsu baten onduan eserita, ardo beltz alai-garriaren aurrean, edo bestela sagardotegian, kupel tartean, eskuetan urrearen antzeko eraria dutela, lagunez inguratuta, ereztu batek, ereztu besteak, tšandaka alkarri ziri zorrotzak eta esaera pozgarriak zuzenduaz ¿zeñek ez ditu ikusi?

Iñun biursak egiten ikasigabekoak, berezko bersolariak, neurtitzak esateko erreztasuna jaiotzatik dakartenak, dira bersolari abek. Ez ditugu goi-goraño altšatuko, gure errikoak dirala ta beste gabe; bersolari aben lana, liburuetau jarri ta lurbira guztian irakurtzeko aiñbat ederra dala ezdegu esango, ez da egia ta.

Baña Euskalerrian, beste iñun bezela, bersoak egiteko erreztasuna daukaten gizon asko jaiotzendirala, esan beardegu. Jai egun guztietan ikusiko dituzute erariak dauden estalpe geienetan. Batzuek onak, Sarra-goak besteak, ardoa ta sagardoa dauden tokietan, bersolariak ugari izatendira.

Lenago an bakarrik ikustenziran; ardotegi ta sagardotegietan. Orain, badira erriz-erri jaietan ibiltzendiranak, eta biltoki ta batzarretan ereztutzendutenak. Gipuzkoa'n erri askotara joatendira, bein batzuek, urren-goan besteak, geienetan Donostia'ko Zapirain artezkari dutela. Kale nagusian jartzendira aurrez-aurre dauden leioetan, bi batean, bi bestean, eta ikustekoak izatendira bersolarien esaera parregarriak eta aditzaiearen algara aundiak.

Errotaria dala, ta errota ibiltzen ipintzeko ainbat ardo eratenduela

egunero, batek; alduenak eratenduela, onek; gizona bada, argala bada, au egin badu, ori egin ez badu, ala bizi dala, ez da ala bizi, semea alperra dala, traketsa jaiozala alaba, izaten dute beti alkarri akatza nundik atera, ta, erantzuera etšetik buruz ikasita etortzendirala esan leiteke; ain azkarra ta egokia izatenda. Gero.... jakiña; au esanduela batek, eta entzunle guztiak parre indarrez bersoaren bukaera estaliaz; bestiak ori erantzun diola, ta parre gogotik berriz, bersoaren azkena iritši baño




JOSE BERNARDO TA PELLO-ERROTA, BERSOLARIAK.

(Iturria anaien fot*)

lenago, zer esango dion ¿asmatuaz. Ta orrela, laguntasun ederrian, buka tutakoan gaizki-esan guztiak barkatuaz, igarotzendute ordu atsegingarri bat.

Ara; orri abetan ikustendan lenengo edergarrian, or daude, ezkerretik eskuira, Joše Bernardo ta PeĻo-Errota, Asteasu ko errotaria. Ondarribi'ko kale nagusian daude. Oien aurrean, kalearen beste aldean daude Zapirain'go Joše, ta Gaztelu. Makiñabat zer esan emandu berso-jolas abetan PeĻo-Errota'ren errotak, eta bai ta ere bere makilak, eta bere buru zuriak ere bai. Baña ezda PeĻo errez išiltzendan gizona. ¡Bai zera!



ONDARRIBIARIAK, BERSOLARIAK ADITZEN

(Iturr'a ana'en fot®)

Gogor ekin eta jarraitu egiten du berak ere Ta entzunleak, jakiña, parre ta parre aoa betian. Bigarren edergarria ikusi baizik ezdago. Begira, begira Ondarribi'ko itsas-gizonak eta itsas-gizonak ez diranak, gora begira Zapirain'ek PeĽo-Errota'ri esandionagatik parrez. *¡Etziok ziri makala sartu!* esatendute arrantzaliak. Baña zaudete piška bat; laister buru guztiak PeĽo-Errota dagon aldera biurtukodira, ta aditukodezute onek erantzuera bukatzean, algara izugarrizko aundi bat egin eta gero, nola esango duten arrantzaleak: *¡Ederrak eman zizkiok!*

MUJIKAKO GREGORIO.

